



BARREN

TOKOMOM

# Tratu onak lantzen



I. URTEURRENA

*Ander  
Modamio Alvarez*

2015eko urtarrilaren 30an hil zen,  
49 urte zituela



*Gurutze  
Modamio Alvarez*

2015eko otsailaren 20an hil zen,  
54 urte zituela



*Seme eta alaba ahaztezinak  
zer labor bidea  
zer sakon arrastoa  
nire patua izan zinetenak,  
laster arte.*

*Ama*

I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 20, arratsaldeko 19:00etan  
Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.



ANDER IZAGIRRE



*“Herri batzuk aspaldi ohartu dira badela buelta emateko garaia, eta urtetik urtera beraien basoa eraldatzen dabilta”*

**A**upa, Inma! Aurrekoan Aitzolen eupada jaso genuen, Sargoaten auzolana zegoela eta ea animatuko ote ginen. Herritar batzuk gustura bertaratu ginen, hamaitakako elegante baten truke lan arin batzuk egiteko.

Orain dela urte batzuk erosi zuen Morkaikok Sargoateko iturri inguruko lur eremua, pinuz josita dagoen ingurune batean, bertako landaretzaz osaturiko irla txiki bat bederen osatzeko asmoz. Eta urtetik urtera lan polita egiten dabilta. Zorionak!

Elgoibarren baditugu paisajistikoki politikak kontsideratu daitezkeen ingurune batzuk, baina egia esan, alde batera zein bestera begiratu, pinua gailentzen da denean. Pinuak ez du lehen ematen zuen dirua ematen eta bertako basoak badauka zer eman. Herri batzuk aspaldi ohartu dira badela horri buelta emateko garaia, eta urtetik urtera beraien basoa eraldatzen dabilta, pixkanaka

lur eremuak erosi eta bertako landareak landatuz. Horretarako diru-laguntzak izan ohi dira, eta herri horietako udalek ondo ezagutzen dituzte. Zuek, bai argiak!

Elgoibarren, orain arte behintzat, udalak horrelako proiektuetarako diru partida gutxi bideratu dituelakoan nago. Baina aurrez aipatutako diru-laguntzarik eskatzen ote du? Azken urteotan egitasmo “berde” ugari ezagutu ditugu Udalaren partetik. Zergatik ez dio beste egitasmo desberdin baina interesgarri hauei ere ekiten? Badirudi asmoa baduela. Ikusi behar, ea egia den!

Hori bai, Elgoibarren badugu zer aldatu, baina baditugu erakusteko altxorak ere. Eta horiek balioan jartzeko garaia ere bada. Laster zuk erakutsiko dizkiguzu altxor geologiko interesgarri batzuk, ezta Inma?



INMA MUGERTZA



*“Gure paisaiak eta inguruak ezin izango ditugu estimatu eta errespetatu ezagutzen ez baditugu”*

**K**aixo zuri ere, Ander! Bai, ni ere ulertu ezinik nabilen kontu bati heldu diozu. Elgoibarren jende gogotsua dago, mota ezberdinetako jarduerak egiteko motibatu, hainbat arlotan aditua eta, gainera, musutruk lan egiteko prest dagoena. Sargoateko auzolana horren froga argia da. Baina energia eta gogo guzti hori galtzeko arrisku handia dago, baldin eta ez bada bermatzen eta ez bazaio behar duen babes ematen, jarraipena izan dezan.

Diozun moduan, baditugu paisajistikoki politikak kontsideratu daitezkeen ingurune batzuk. Hainbat kasutan, gainera, politikak ez ezik garrantzitsuak ere badira, inguruko biodibertsitatean duten, edo eduki dezaketan, eragin positiboa kontuan hartuta. Hauen babesak eta kontserbazioak lehenasuna izan beharko luke, baina ez du. Batzuen ustetan ziurrenik, epe laburrean ezin

zaielako etekin ekonomikorik atera. Baina, zein oker dauden! ...horrez gain, zer gertatzen da etekin sozial eta etikoarekin? Eta etekin kulturalarekin?

Badira gurean gune xumeagoak ere, baina ez horregatik baztertu beharrekoak. Horietako batzuk hobekuntza edo gutxienez, aurpegi-garbiteta bat oihuka eskatzen ari diren txokoak dira. Laburbilduz, lan egiteko gogo dago eta baita non lan egin ere. Hortaz, zergatik ez lekuak eta ekintzak finkatu eta guztiok norabide berean esfortzuak bideratu?

Bai, Ander, estatuko zenbait unibertsitatek ia urtero bisitatzen dituzten altxor geologikoak ditugu hemen. Gure paisaiak eta inguruak ezin izango ditugu estimatu eta errespetatu ezagutzen ez baditugu, beraz, ezagutza suspertu beharra dago. Hoberena/interesgarriena/politena ez da beti kanpokoa, kontxo!

## ANE ASTIAZARAN

Itzulpengintza ikaslea



**D**uela gutxi hasi da lauhileko berria unibertsitateetan. Lauhileko berria, arlo berriak, irakasle berriak, edo arlo berriak eta irakasle zaharrak, edo arlo zaharrak eta irakasle berriak. Edo egoera zaharrak eta soluzio txarrak. Halako baten aurrean aurkitu gara itzulpengintzako laugarren mailako ikasleak. Joan zen lauhilekoan hasitako eskolaren jarraitpenak izan dira azken kurso honetako protagonista. Hori bai, inongo garrantzirik ez duen aldaketatxo batekin: euskaraz zena gaztelaniaz izango da orain.

Egin dezagun salto kurso hasierara: sekulako zalaparta sortu zen ikasleengan itzulpenak euskarara egiteko eskubiderik ez gurela jakin gurenean. Ez da, noski, bertako unibertsitate batean hori gertatzen den lehen aldia, baina harritze-

koa ez bada, beldurtzekoa da hizkuntza landu besterik egiten ez den karrera batean. Lehen hizkuntza (A hizkuntza deiturikoa) hautatu behar izan genuen unibertsitateko lehenengo mailan: gaztelania ala euskara. Gehiengoaren hautua izan zen bigarren hori, horrek dakartzan desabantailak kontuan hartuta ere. Bena, azken kurtsora iristean, konturatzen zara A hizkuntza hori aldatu egin dizutela.

*“Kasualitatea da gaztelania inposatzearen aurka altxatzeagatik, irakasleak beldurrez ibiltzea”*

Idatzi formalak egin, irakasleekin hitz egin, graduako arduradunari mila galdera egin, errektoreordetzan orduak itxaron. Azkenean jaso genuen “Zergatik gaztelaniaz?” galdera triste haren erantzuna. Bi izan ziren arrazoiak: 1. Lan merkatuari begira, ez omen da (geure kasuan) alemanetik euskarara itzultzeko lanik; eta 2.

Euskaraz matrikulatutako ikasleak ez omen dugu gaztelaniara itzultzeko behar den mailarik (gaztelaniaz matrikulatutakoek euskarara itzultzeko?).

Bi izan ziren ikasleon irakurketak: 1. Huskeria da gure formakuntza lan merkatuarekin alderatuz. 2. Tuntunak gara.

Kasualitatea da Euskal Herrian bizi dugun egoera diglosikoak euskaraz ikasi eta seguraski lan egingo duten ikasleak baztertzea. Kasualitatea da gradua, fakultatea, jasotzen dugun hezkuntza, unibertsitatea mugitzen duten horien interesen arabera izatea. Kasualitatea da unibertsitate euskaldune(t)an normalizazio planak onartu eta aurrera ez eramatea. Kasualitatea da irakasle euskaldunek gaztelaniaz irakatsi beharra izatea. Kasualitatea da gaztelania inposatzearen aurka altxatzeagatik, irakasleak beldurrez ibiltzea. Kasualitatea da (programaren arabera gaztelaniaz egin beharreko) azterketa euskaraz egin, eta kriminal sentitzea. Kasualitate gehiegi, gauza onerako.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko lehen itzulpenaKalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)[www.barren.eus](http://www.barren.eus)Publizitatea: 943 743 704 - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriando, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar  
1821-2021

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► OTSAILAREN 28AN DENOK ZUBIETARA!

Kaixo, elgoibartar! Jakingo duzunez Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan eraiki nahi duen erraustegi-proiektua berpiztu du. Behin eta berriro sinestarazi nahi digu erraustegia nahitaezkoa dela, atzeraezina. Hemendik pixka batera proiektua esleituko duela, geroxeago lanak, eta lau urte barru erraustegia halabarrez martxan egongo dela, tximinitik kea dariola. Asko gara, elgoibartarrak barne, erraustegiaren proiektuan sinisten ez dugunok, bestelako alternatibak badaudela uste dugunok, esaterako atez ateko hondakinen bilketa zerbitzua, auzo konpostaguneak,... Hori dela eta ingurumearekin eta osasunarekin konprometituta bazaudete, datorren otsailaren 28an, Erraustetaren Aurkako Mugimenduak Zubietako "0 puntura" (Foru Aldundiak erraustegia eraiki nahi duen parajeraino bertaraino) antolatu duen martxan parte hartzea animatu nahi zaitut.

Martxa hainbat herritatik abiatuko da eta parte-hartzaileak bidean topatzen joango dira (elkargune nagusiak Lasarte-Orian eta Zubietan egingo dira). Guztiak 12:00ak aldera Letabiden elkartuko dira, Aldundiak erraustegia eraiki nahi duen lekuan. Bertan argazkia atera eta elkarrekin jaitziko gara. 13:00ak aldera, Zubietako frontoian, martxa burutzeko ekitaldi xume bat egingo da.

Martxaren abiapuntuak: 08:00tan Zizurkilen (plazan), 08:00tan Andoain (merkatuan), 08:30ean Hernanin (Gudarien plaza), 09:30ean Añorga Txikin, 10:30ean Lasarte-Orian (Okendo plaza), 11:00etan Usurbilen (frontoia) eta 11:00etan Zubietan (frontoitik).

Animatu zaituzte! Guztion osasuna joan dago!

A.I

### ► PILARREKO APARKALEKUA KONPONTZEKO ASMORIK BAI?

Pilarreko aparkalekuan maiz uzten dut autoa. Duela urte batzuk Udalak bertako gunea egokitu zuen herritarrok autoak aparkatzeko. Ideia ona izan zen eta bere egunean Udala txalotu nuen. Hormak ere atondu zituen ingurunea atseginagoa izateko baina tamalez itxura besterik ez da izan. BARRENez agertu dira hainbat kexa ingurune hori egoera txarrean dagoela adieraziz (harririk erortzen dira, zuloak daude,...) . Tamalez aparkalekuak bere horretan jarraitzen du.

Aste honetan euri asko egiten ari da eta ingurune guztia putzuz josita dago. Egoera penagarrian dago, arriskutsua niretzat, kotxeentzat eta oinezkoentzat ere.

Dagokionari: irtenbideren bat bilatzea eskatzen dut, gutxieneko konponketa batzuk egiten badira ere.

Mila esker.

M.I.A.

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduniko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datorren eskutitz argitaratuko.

## Hondakin-tasa %10 eta %15 artean garestituko da

**H**ondakinen auziak zeresana ematen jarraitzen du Debabarrean. Aurreko barixakuan, sailkatzen ez den zaborra Kantabriako zabortegei batera eramango dutela zabaldu eta egun gutxitara, hondakin-tasa %10-15 igoko dela adierazi zuten Mankomunitateko arduradunek prentsaurrekoan. Aurreko legealdian errauste planta geldiarazi zuten arduradunei leporatu diete igoeraren errua. Elgoibarko EH Bilduk, berriz, adierazi du erraustea baino alternatiba merkeagoak eta garbiagoak badaudela.

“Aurreko legealdian Hondakin Planen aurreikusitako azpiegiturak geldiarazteko hartutako erabakiak Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioan eragin duen defizita dela-eta, %20 igo behar izan da orain arte zaborren tratamendurako aplikatu den tarifa eta, horrekin batera, materia organikoaren gaikako bilteta bultzatzeko diru-laguntzak murriztu behar izan dira”, Arcadio Benitez (PSE) Mankomunitateko presidentek barixakuan azaldukoaren arabera. Agerraldian Elgoibarko Josu Arraiz (EAJ) zinegotziak ere parte hartu zuen.

### 173 euro zabor tona bakoitzak

Hondakinak tratatzeko, tona bakoitzaren tarifa 144,26 eurokoa zen iaz, eta orain, berriz, garestiagoa da (173,11 euro). Horrekin batera biohondakinei aplikatzen zitzaien saria jaitsi egingo da, %50etik %15-35era.

Aurreko legealdian, Bilduk Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioan gehien goa zuen, eta Zubietako errauste plantaren proiektua bertan behera lagatzea erabaki zuen. Aurreragoko kudeatzaileek, baina, erraustegi proiektua lotuta laga zuten; obra gelditzeagatik kalte-ordainak jaso beharko zituzten enpresek eta erabili ez den kreditu baten interes-tasen aseguruia (Swapak) ordaindu beharko zieten finantza entita-



Joan den barixakuko prentsaurrekoko argazkia (Argazkia: ...eta kitto!)

teei. Kontsorzioaren arabera, 40 milioiko defizita eragin du horrek guztiak.

Debabarreneko Mankomunitatearen arabera, gertaera horrek nabarmen garestitu du hondakinak biltzeko eta kudeatzeko faktura. Debabarreneko Mankomunitateak 2,6 milioi euroko faktura ordaindu zuen 2015ean. Hondakin kopuru berbera batuz gero, aurten 3,45 milioi eurokoa izango da.

Hondakinen tasa igotzeak birziklatzeari lagatzeko aitzakia ez izatea espero du Arcadio Benitezek. “Zenbat eta biohondakin gehiago birziklatu, orduan eta txikiagoa izango da igoeraren eragina. Horregatik da horren garrantzitsua herritar guztiek parte hartzea”, adierazi du.

### Alternatiba merkeagoak

“Muturra behar da”, erantzun die Elgoibarko EH Bilduk Mankomunitateko arduradunei ohar bidez, “kudeaketa bera zalantzan jarri gabe, emaitzen errua herritarrei botatzeko”. Izan ere, Debaba-

rrena da Gipuzkoan birziklatze tasa baxuena duen eskualdea. Koalizioaren iritziz, “askoz kutsakorragoa eta askoz garestiagoa den azpiegitura bat egitea ezin da izan lehenetsitako aukera”.

EH Bilduk uste du erraustegiak badauela alternatiba, askoz gehiago birziklatuz gero, eta bost edukiontzietan oinarritutako sistema hobetu daitekela. Arrasaten, esate baterako, bost edukiontzirekin %79,72 bereizten dute; Elgoibarran, berriz, %42,77. Batez beste, bereiztu gabe 106,13 kilo zabor uzten ditu arrasatear bakoitzak urtero eta 232,5 kilo elgoibartar bakoitzak.

“Herritarrei pilota bota gabe, hor daukagu aukera hartu beharreko neurriak hartzeko eta bost edukiontzietan oinarritutako sistema erreal bat aplikatzeko. Gaur egun elgoibartarren erdiak baino gehiago ez du bostgarren edukiontzia erabiltzen, errefusarentzat bakarrik izan beharko lukeen edukiontzia dena nahastuta botatzeko erabiliz”, adierazi du EH Bilduk.

## Gizonezko bat hil da Idotorben, autoa bidetik irtenda



**A**uto istripuan hildako gizonezko baten gorpua aurkitu zuten martitzenean, San Pedrotik Aubixara bidean. Pendiz handiko zelaian behera amildu zen autoa eta kilometro bat beherago dagoen errekaostean gelditu zen. Idotorbeko bizilagunek autoa ikusi ondoren abixua eman zuten, baina udaltzainak eta suhiltzaileak hurbildu zirenerako, auto barruan hilda topatu zuten 67 urteko elgoibartarra.

## Abian prozesuan parte hartzeko dei egin dio ezker abertzaleak bere militantziari



Ezker abertzalea Abian gogoeta prozesuan murgilduta dago, eta eztabaida fasea nola egingo den aurkeztu du. "Parte hartze zabala eta emankorra izatea bilatzen dugu, horregatik, beraien burua ezker abertzalekotzat duten pertsona guztiak bildu nahi ditugu: elkarri entzun eta bereziki, elkarrekin gogoeta egin, eztabaidatu eta Euskal Herria askatasunera eramango duen bidea denon artean adosteko", adierazi dute. Elgoibarren hiru batzar egingo dira, lehenengoa otsailaren 27an eta bigarrena martxoaren 12an (zapatu goizez biak); azken erabakiak apirilko beste batzar batean hartuko dira. Prozesuan pesoan ekarpenak garrantzitsuak direla iritzita, bihar (zapatua) espetxeetako martxara joateko animatu dute militantzia (Elgoibartik Logroñokora joango dira, 08:15ean irtenda).

## Olioaren kanpainari ekin dio Errigorak

Nafarroa Hegoaldeko produktoreengandik zuzenean, olio birjin estra ekarriko du Errigora ekimena Elgoibarrera martxoan. Iaz bezala, ekoizleen jatorrizko prezioetan erosi ahal izango da olio (konbentzionala 22,50 eurotan bost litroko botila eta ekologikoa 32 eurotan).

Eskaerak gaurtik (otsailak 19) hasita egin daitezke, martxoaren 2ra bitartean. Horretarako, [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) webguneko formularioa bete behar da edo [elgoibar.errigora@gmail.com](mailto:elgoibar.errigora@gmail.com) helbidera idatzi behar da. Bestela, Orbea tabernan eta AEK euskaltegian lagatako eskuorriak beteta egin daitezke eskaria. Zalantzak argitzeko eta kontsumitzaileek olio dastatzeko, Elgoibarko Errigorako ki-deak kalean izango dira otsailaren 27 goizean (zapatua). Orduan ere egin ahal izango dira eskaerak. Banaketa eguna martxoaren 12an izango da. Urte osoko kanpaina denez, Errigorak gogorazi nahi die kontsumitzaileei urte osoan zenbat olio behar duten kalkulatzeko.

Euskal Herrian bertan ekoiztiko kalitatezko elikagaien kontsumoa Euskal Herrian bertan sustatu nahi du Errigorak.

## Txankakuako Gabonetako zozketako sari banaketa

Txankakua elkarteak Gabonetako zozketako sariak banatu zituen barixakuan. Maria Atriok 500 euroko erosketara bonua jaso zuen. Ehuna euroko erosketara bonuak eskuratu zituzten Ignacio Garaik, Patricia Carcedok, Rosa Zubiaurrek, Jesus Mari Astigarragak, Nieves Egañak, Maria Jesus Azkuek eta Esther Orubek. 100 eta 500 euroko bi sari eman gabe gelditu ziren inor ez zelako agertu.



# Gizarteratzeko arazoak mahai gainean

Elgoibarko gizarteratzeari eta gizarte bazterkeriari buruzko diagnostia eta aurtengorako lan plana aurkeztu ditu Elgoibarko Gizarteratze Mahaia (Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Saila eta Berdintasun eta Enplegu Saila, Lanbide, Zabaltzen elkarteak –Sartu–, Caritas, Gurutze Gorria, Nagusilan, Stop Desahucios Debarrena, Gizarte-bazterkeriaren aurkako Plataforma eta Kalamua Guraso Elkatea). Diagnostikiaren arabera etorkinak, emakumeak eta adinekoak dira gizarte bazterkeria jasateko arrisku gehien dutenak.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Gizarteratze Mahaiko erakunde eta taldeetako ordezkariak diagnostikiaren aurkezpenean.

**K**risia. Azken urteotan denon ahotan dabilen hitza eta Elgoibarko hainbat erakunde eta elkarte mahai gainean jarri duena. Krisi ekonomikoaz gain, beste faktore batzuek ere eragiten dute gizarte-bazterkeria eta gai horren inguruan lan egiten duten erakunde eta gizarte mugimenduetako ordezkariak Gizarteratze mahaia osatu zuten. Informazioa eta aholkularitza ardatz hartu arren, partaidetza, elkarlana eta gaiari buruzko esperientzia eta ezagutza baliatu dituzte diagnostia bat egin eta antzemandako ga-beziei aurre egiteko.

Erreparatu dituzten datuen artean daude ezinduei buruzkoak. Elgoibarren 827 biztanlek du %33tik gorako aitortutako ezintasunen bat eta 338k %65 baino gehiagokoa. Beraz, mahai honek beharrezkotzat jo ditu oinarriko jarduerak egiteko laguntza programak eta zerbitzuak. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen baliabide zehatzak eskaintzea ere aurreikusi dute. Adingabeena da atal honetan landutako beste gai bat eta haurrei, nerabeei, gazteei eta haien familiei zuzendutako programak garatzen jarraitu behar dela uste dute eskola, guraso elkarte ludoteka, gazteleku eta aisialdi taldeekin elkarlanean.

## DIRU-LAGUNTZAK

Kolektibo horiei laguntza eman bai, baina mota bat baino gehiagokoa dira prestazio ekonomikoak. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen zuten bizikidetzak 298 ziren 2015eko urtarrilean. Bazterketa egoerak pre-

benitzeko, saihesteko edo arintzeko gizarte larrialdietarako laguntzak ere ematen di-

**Pobreziak batez ere migratzaileei, emakumezkoen eta adinekoei eragiten die**





## Iaz Elgoibarko populazio

### migratzailea %7,9ra iritsi zen eta gehiengoa Latinoamerika, Magreb eta Europar


### Magreb eta Europar

### Batasunetik dator

tuzte, baina badira hainbat laguntza jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztenak, eta horiek, besteak beste, Caritasen laguntza jasotzen dute. Baliabide ekonomikoen gabeziaren eragina nabarmenen jasaten dute migratzaileek, emakumeek eta pentsiodunek. Mahaiaren ustez, ez dirudi pertsona horietako gehien integrazioa enpleguaren bidez lortzeko aukera dagoenik epe laburrera edo ertainera, beraz, gizarteratze-eredua berriro pentsatu beharko litzateke.

#### ETXEBIZITZA

Lanik eta diru-laguntzarik ezean etxebizitza eskuratzeko ere arazoak izan daitezke. Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren datuen arabera, Etxebiden 161 etxebizitza-eskaera egin dituzte Elgoibarren, horietatik %58 alokairukoak. Izan ere, jabetza aukeratzaren dutenen diru-sarrerak ia alokairua eskatzen dutenen sarreraren bi-koitza dira. Alokairu-etxeen inguruko informazioa trukatzeko bideetako bat, ezinean dauden pertsonen alokairuko etxebizitzara sarbidea errazteko. Baita baliabideak bultzatzea, esaterako, norbait etxegabetuz gero ostatu emateko.




Etxebizitza falta da krisiaren ondorioetako bat, baina askok pairatzen dute krisiaren eragina, tartean emakumeek. Lanean, esaterako, ezegonkortasun handia dute. 2014an, esaterako, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia aldi baterakoa eta lanaldi partzialekoa izan zen; gizonezkoek sinatutako era horretako kontratuak baino 2,6 aldiz gehiago.

Arazo ekonomikoez gain, emakumeek beste batzuk ere badi-tuzte, genero-indarkeria, adibidez. 2012 eta 2013an emakume

migratzaileak ziren biktimen erdia. Emakumeek ez gutxiesteko haurtzarotik jarrera ez-sexistak erakutsi behar direla dio mahaiak; baita ere esparru guztietan genero-indarkeriaren aurkako sentsibilizazioa landu eta emakumeek bizitza publikoan duten partaidetza eta presentzia hobetu.

Emakumeen zein gizonen populazioa gero eta zaharragoa da, gainera, adinekoen zaintzan familiak betetzen duen lekua pixkanaka aldatuz doa. Beraz, erronken artean daude, esaterako, horri erantzuna emateko beharrezko zerbitzuak, programak eta ekipamenduak garatzen jarraitzea eta zahartze aktiboa lantzea.



Migratzaileena da gizarte-bazterkeria gehien jasaten duen hirugarren taldea. Azken 15 urteotan, Elgoibarren populazio etorkinaren hazkunde iraunkorra gertatu da 2015ean, %7,9ra iritsi da eta gehiengoa Latinoamerika, Magreb eta Europar Batasunetik dator. Migratzaileak dira aurrez aipatutako arazo asko pairatzen dituztenak: dirulaguntzen beharra, langabezia eta emakumeen mendekotasuna adibidez.

Arazoak asko dira, eta bilatu beharreko irtenbideak beste horrenbeste. Horretarako hainbat ekintza jadanik jarri dituzte mahai gainean: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema berriari buruzko hitzaldia, pobrezia eta bazterkeriari buruzko sentsibilizazio-jarduerak, migratzaileei buruzko estereotipoen aurkeztzeak eta aurreiritziei aurre egiteko jarduerak, boluntarioritza eta partaidetza sustatzeko ekintzak...



Datu zehatzak jasotzen dituen diagnosiaren laburpena, datu zehatzagoekin, [www.barren.eus](http://www.barren.eus)-en ikusgai jarri dugu eta aurki diagnosi osoa egongo da eskuragarri Udalaren webgunean, [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)

## NEREA GOROSTIZA Kalamua Guraso Elkarte



Gure seme-alabak herriko etorkizuna dira eta mahai honek ematen digu aukera diagnosian agertutako gaiak (etorkinak, emakumeak eta berdintasuna, kultura ezberdinen bizikidetzeta...) jorratzeko. Hezkuntza arloan, ikastetxeekin eta mahaiarekin batera gure

seme-alabei baloreak transmititzeko bide egokia izan daiteke.

Kalamua Guraso Elkarte mahaian sartu zen gure umeen eta herriaren alde lan egiteko. Ez dugu zehaztu elkarte edo erakunde bakoitzak zein lan egin behar duen, baina aukera ematen digu hausnartzeko, ateratako ondorioei aurre egiteko, herriko umeekin zein lan egin daitekeen.

*“Hezkuntza arloan, ikastetxeekin batera gure seme-alabei baloreak transmititzeko bide egokia izan daiteke mahai hau”*

Nik uste dut gai guztiak landu daitezkeela. Kultura ezberdinetako familiak daude eskolan, kalean eta herriko leku guztietan, beraz, ezinbestekoa da kultura ezberdinen arteko bizikidetzeta lantzea. Emakumearen inguruko gaiak egunerokoak dira eta neska-mutilen arteko hezkidetzeta lantzea ezinbestekoa da. Eta nagusiekiko errespetua izaten, adinekoek zein garrantzi daukaten umeei erakutsi behar zaie.

## ION ARRIETA Caritas



Guretzat oso ideia ona izan zen gure eguneroko lana egiteko orduan beste ikuspuntu batzuk izatea eta jakitea beste batzuk nola ikusten duten egoera eta horren aurrean nola erantzuten duten. Oso aberasgarria izan da.

Gu, ildo horretan lanean ari garenez, mamu bat kentzeko modu bat izan da beste erakunde batzuek zein lan egiten duten ezagutzea, ikustea eta ikastea gero guk ere aplikatzeko.

*“Mamu bat kentzeko modu bat izan da beste erakunde batzuk zein lan egiten duten ezagutzea”*

Bestalde, parte hartzen dugunon artean harremana sendotzea beharrezkoa da. Pertsona berberak ate joka ibiltzen dira ate baten baino gehiagotan, eta gure artean informazioa izatea garrantzitsua da pertsonen buruz ez ezik egoerari buruz ere. Horretarako, besteak beste, Euskal Herriko Laguntza Zerbitzuko Legeari buruzko hitzaldi bat egingo dugu eta etorkinei buruzko zurrumurruen inguruko tailer bat ere egitekoak gara. Guk lotura handia daukagu eta etorkinekin eta interesgarria iruditzen zaigu beraiei ez ezik herrira ere zabaltzea nola dagoen egoera eta zer egin daitekeen.

## Enplegua eta lana datutan

Langabezia da gizarteko beste arazo Lesanguratsu bat. Horri aurre egiteko prestakuntza behar duten sektore eta esparruak zein diren aztertu behar da. Era berean, prestakuntza maila baxua eta lana topatzeko arazo handienak dituztenentzat egokitu behar da prestakuntza mahaiaren esanetan.

- ◆ Langabezia-tasa egonkorra azken urtean. Gipuzkoa osokoa baino txikiagoa. Eskualdeko beste herrietakoa eta EAEkoa baino baxuagoa.
- ◆ Langabeziak eragin handiagoa emakumezkoetan (langabetuen %54).
- ◆ Langabeziaren eragina altua 25 eta

44 urtekoen artean (langabetuen %57).

- ◆ Langabetuen %18,8 da 55 urtetik gorakoa eta 50etik gorakoa, %28,1.
- ◆ Iraupen luzeko langabetuen tasa: %54 (emakumezkoetan %57).
- ◆ Langabetuen %70ek baino gehiagok ez du kobratzen laguntza-prestazioa, langabezia subsidioa edo laneratzeko Errenta Aktiboa.
- ◆ Langabetuen %62k ez du derrigorrezkoek gain beste ikasketarik. Prestakuntza edo espezializazio txikia duen langabetuen populazioa da.
- ◆ Langabezia gehien jasan duen kolektiboetako bat atzeritarrena da (langabetu guztien %23).

- ◆ Azken urtean, kontratazioen igoera.
- ◆ Egonkortasuna: kontratazioen baldintzak okertu dira (2012an, kontratu baten batez besteko egunak 77; 2013an 42 eta 2014an 48).
- ◆ Sinatutako kontratuen ia %80 mota hauetakoa da: aldi baterakoak denbora partzalean, ekoizpenaren gora-beherek eragindako lanaldi osoko aldi baterakoak eta lanaldi osoko obragatiko edo zerbitzuagatikoak.
- ◆ Emakumezkoek are gehiago jasaten dute ezegonkortasuna. Aldi baterako kontratuen eta lanaldi partzialekoen kasuan, emakumezkoen proportzioa gizonezkoena baino handiagoa da.




Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**S**an Rokeko aparkalekuko koskak arrisku-  
tsuak dira: “San Roke kaleko 18 eta 20 zenbakien ar-  
teko aparkalekuan ererikoa izan nuen asteburuan. Koska  
batzuk daude autoaren eta espaloiaeren arteko espazioa ba-  
natzeko. Horietako batekin trabatuta jausi egin nintzen eta be-  
launean zauria egin nuen. Eskatu nahi nuke koska horiek hor  
mantendu behar badira kolore deigarriren batekin margotzeko  
jendea konturatu dadin. Beste aukera bat litzateke txikiagoak  
jartzea eta, hala ere, kolore edo argiak ipintzea ererikoak  
saihesteko, ni bezala beste batzuk ere trabatu dira-eta”.



**B**asarte kaleko lurjausia kentzeko denbora  
asko: “Basarte kalean lurjausi bat izan zen urtarrilean  
eta 15 egunetik gora pasa behar izan dira ziren jausitako  
harriak haso eta ingurua txukuntzeko. Espaloiaeren zati bat  
estali zuen eta egunero bertatik ibiltzen garen auzotarren-  
tzako traba izan zen. Espero dut gure auzoan berriz horre-  
lakorik ez gertatzea, baina gertatuko balitz, gurean edo  
herriko beste edozein auzotan, eskertuko nuke gertatu ahala  
hondakinak kentzea eta behar bada ingurua konpontzea is-  
tripurik gerta ez dadin”.



**D**ultzaineroak Urazandin, eskertzekoa: “Do-  
meka goizean hotz eta euri giroa zen kalean, baina  
leihora ateratzeko aitzakiarik ez zitzaion falta izan Urazandi  
auzoko bizilagun bati baino gehiagori. Izan ere, dultzaina  
doinuak entzun ahal izan genituen diana jotzen. Aurrez ere  
irakurri izan dut Elgoibarko beste auzo batzuetara egindako  
bisitak eskertu dituela batek baino gehiagok. Niri ere txalo-  
tzeko modukoa iruditzen zait horrelako ekintzak herriaren er-  
digunean geratu beharrean inguruko auzoetara zabaltzea  
eta elgoibartar guztiak kontuan hartzea. Guk gogoz hartzen  
ditugu eta beraiek ere jakitea nahi dugu”.

# “Berdintasunari lehentasuna eman behar zaio, agenda politikoan sartu behar da”



## Miren Vives, Nisrine Elbarchri, Jabi Muñoz

TRATU ONEN ALDEKO TAILERREKO KIDEAK

Joan zen domekan egin zuten tratu onen tailerraren lehen bilera. Hemeretzi parte hartzaileek gogoz jardun zuten saioan, eta aberasgarria izan zela nabarmendu dute. Emakumezkoak zein gizonezkoak, denak batera, berdintasunaz edota matxismoari aurre egiteaz jardun zuten. Modu xumean hasi badira ere, gizarte osoaren arazo handi honi aurre egiteko estrategia positiboak planteatzen ari dira herrira begira. Orain arte Mendaron gai honi inoiz ez zaiola serio heldu uste dutenez, Udala eta herritarrak sensibilizatu nahi dituzte. Alde batetik, hilketa kasuetan zer erreakzio izan behar den adosten hasiak dira eta bestetik herrian epe motzean egin daitezkeen ekintza prebentiboak aztertzen hasi dira. Miren Vives, Nisrine Elbarchri eta Jabi Muñozek tailerraren xehetasunak azaldu dituzte.

- OIER NARBAIZA -

### ◆ Nola sortu da tratu onen aldeko tailerra sortzearen ideia?

**Jabi Muñoz:** Zenbat ordu egoten garen kalean gai honi buruz hitz egiten! Gero pertsona batzuek ere beraien lanetan jorrazten dute gai hau... Detonantea izan zen Gasteizen Alicia umea hil zutenean. Pertsona batek bidali zuen whatsapp bat galdetuz zer egiteko prest gauden eta plazan gelditzeko. ÇHurrengo egunean edo bi egun geroago 23 pertsona azaldu ziren plazan. Bilera espontanea izan zen, M-15 moduko zerbait... Gogoratzen

dut hemeretzi emakume eta lau gizon azaldu zirela. Lau gizon azaltzea plazan ez da gutxi! Jendea gaiari buruz hitz egiten hasi zen: “Zerbait egin behar da”. Baina hainbeste jende geundenez, ezin zen bilera batean erabaki zer egin! Tailerra antolatzea pentsatu genuen, eta horrela irten zen ideia.

### ◆ Zehazki zeren inguruko kezkak partekatzen zenituzten kalean?

**JM:** Iritzia pertsonala da, ez da taldearen izenean. Nik argi daukat zergatik egin behar den zerbait herrian. Indarkeria ma-

txista emakumeek sufrizten duten gizonen arazo bat da. Arazo mundiala da, uniberttsala, leku guztietan gertatzen dena. Lehen ere gertatu da, gertatzen ari da eta gertatuko da zoritxarrez hurrengo urteetan behintzat. Iritzi pertsonala da: gizartean, oro har, eremu pribatuko arazoa dela pentsatzen da eta arazo estrukturala da, gizarte osoarena, publikoa eta politikoa. Horrek exiitzen du denon konpromisoa.

**Miren Vives:** Genero indarkeria beti ikusi da emakumeen arazo moduan, baina ez da emakumeen arazoa: emakumeek sufri-

tzen dute neurri handi batean, baina bestelako ondorioak ere badauzka. Arazo gizartean bertan ikusten dugu, esparru ezberdinetan, hezkuntzatik hasita. Han geunden guztiok gurasoak ginen, horrek esan nahi du egunerokoan oso garbi ikusten dugula. Han zeuden gizonetako guztiok alabaren bat dute... Indarkeria matxista badago, baina azpitik gauza gehiago ere badaude. Azken batean, iceberg bat bezalakoa da: puntan indarkeria matxista ikusten da, baina horren azpian daude gauza asko. Zenbait gauza hitz egiten dira kalean, taldetxoetan, baina behintzat bide bat topatu nahi dugu denon artean lantzeko. Jendea oso irekita ikusi dugu. Whatsapp taldea egin zen momentutik jendea hasi zen partekatzen artikulak eta bideoak. Jendea informatu buruz eta interesatzen zaio.

#### ♦ **Jokabide guztiak ez ditugu berdin hartzen, ezta?**

**MV:** Izugarriko tolerantzia dago jokabide batzuekin. Jokabide batzuk ez dira hartzen biolentzia modura. Hori inportantea da. Azken batean, tailerra bi ataletan antolatu genuen: bat, erreakzioa, hilketa-aren bat baldin badago zer egingo dugun. Hori bakarrik egiten badugu, herrian pentsatu daiteke hori bakarrik dela indarkeria. Horregatik egin genuen beste partea: zerbait egin behar da horrez gain, sentsibilizazio lanaren bidez agerian jartzeko beste indarkeria mota batzuk.

#### ♦ **Beste esperientzia batzuk hartu dituzue kontuan?**

**JM:** Bai, ni Ermukoa naiz, nik Ermuko esperientzia ezagutzen nuen (han tratu onen aldeko plataforma dago) eta pixka bat hangoa kontatu genuen. Eibarko esperientzia ere kontatu genuen (gauza handirik ez dago baina zerbait bai), eta Durangoa eta Basaurikoa. Hartu ditugu gauzak handik eta hemendik eta Mendaroko herrira egokitu ditugu.

#### ♦ **Nolakoa da tailerra?**

**Nisrine Elbachri:** Bizilagun askoren laguntzarekin martxan jarri dugu, tratu onen gaiak sentsibilizatzeko. Gai korapilotsua da, horretan gaude eta lehen pausoa eman dugu. Whatsappeko taldearen os-

tean, domekan jende asko elkartu ginen. Bileran nik ez nuen espero horrenbeste jende, domeka goiz batean. Jendea hain inplikaturik ikustea eta zerbait egin nahi duela ikustea ondo egon da.

**MV:** Bi gauza egin genituen: erreakzioa definitu eta sentsibilizazio ekintzak aurreratu. Dinamika indibiduala egin genuen: bakoitzak bost minututan gogoeta egin dezala herrian dauden gabeziez hausnartzeko eta hemendik udara bitartean egin daitezkeen hiru gauzei buruz pentsa dezala. Zerbait egin daiteke? Nola?

**JM:** Horrek ez du esan nahi beharko dugula barruko formazioa. Talde espontaneo da, pertsona batzuk gehiago beharko dute eta beste batzuk gutxiago.

**MV:** Gai konplexua denez, minimo bat adostu behar da. Formazioa behar dugu, gaiari buruzko printzipioak garbi izateko.

**JM:** Horrelako talde bat Mendaroko bezalako herri batean erreferente bihurtzen da. Horretarako, argi eduki behar ditugu gauza minimo batzuk.

*“Dena hasi zen  
Gasteizen Alicia  
umea hil zutenean  
eta pertsona batek  
whatsapp bat  
bidali zuenean”*

#### ♦ **Zazpi gizon eta hamabi emakume bildu zarete.**

**JM:** Zazpi gizon ez da oso ohikoa. Horrek esan nahi du talde mistoa izango dela eta talde mistoek badauzkatela bere berezitasunak. Hori ez dakigu jorrotuko dugun. Emakumeen abiapuntua bat da, eta haien lana normalean ahalduzkoa da. Gizonok beste puntu batetik iritertzen gara eta gure lanak izan behar du desahalduntzea. Beharrak eta nahiak ezberdinak dira, erritmoak... Horrek gauzak

konplikatzen ditu, baina herrian dinamizatzen eta *kaña* sartzen saiatuko gara.

#### ♦ **Zer egin daiteke herri mailan?**

**MV:** Formakuntzari lotutako gaiak aipatu dira tailerrean, hezkidetzaz abaltzeko. DBHn asko egiten da, baina umeetara eta helduengana zabaldu beharko litzaiteke. Erreferenteei buruz ere hitz egin genuen, begi bistan erreferente ezberdinak izatearen garrantziaz.

**JM:** Jaietako kanpaina ere komentatu genuen.

#### ♦ **Ekintza prebentiboei begira zaudete beraz.**

**MV:** Hitzaldi bitartez, zine emanaldi bitartez...

**JM:** Beti instituzioei ere zerbait esan behar diegu. Instituzioa politikoa da, eta lehen tasuna eman behar zaio gai honi, agenda politikoa sartu behar dugu. Herri honetan ez zegoen. Ez dago berdintasun teknikaririk eta hori ere izan beharko da taldearen lan bat.

**MV:** Mikromatxismoak lantzeko inplikazioa behar duzu maila guztietan, Udalean ere. Azken Kontzesio azoka egin zenean kexa bat zabaldu zen emakumearen presentzia oso nulua izan zelako. Denean egon behar dugu, adibidea zuek eman behar duzue. Emakumea plazaren erdian ez badago horrek zerbait esan nahi du. Sinbolismoak hor daude. Oso garrantzitsua da Udalak eredu ona ematea eta lkastolak eta elkarteak. Ez dagoenez berdintasun politikaririk hori antzeman egiten da. Gauza horiei ez zaie garrantzirik ematen.

#### ♦ **Beste zer gairi buruz jardun duzue?**

**JM:** Gai gehiago ere azaldu ziren. Maiztaren 17a da LGTBQI. Mendaroko ez da existitzen kolektibo homo, lesbo edo transik. Egon behar dute, seguru, baina ez da ezer egiten instituziotik eta gizartetik eta zerbait landu behar da. Homofobia da gizonetako generoaren sozializazioarako puntaletako bat. Eta hori ere landu eta agerian jarri behar da.

**MV:** Zaintza lanei buruz ere hitz egin genuen. Garrantzia eman behar zaie lan hauei. Espazioak eta holako kontuak.



## Jairo Berbelen 'Siempre, la leyenda de la pecosa de ojos verdes' liburua bidean da

**D**ata zehatzik ez badago ere uda aurretik kaleratuko du Ekuadorko El Conejo argitaletxeak Jairo Berbel elgoibartarraren *Siempre, la leyenda de la pecosa de ojos verdes* liburua. Yulexi Carolina Chevez-en bizitza –jaiotzatik hil arte– kontatuko du liburu horrek. Ekuadorren, telebistarako erreportaje bat egiten ari zela ezagutu zuen Jairok Yulexi, Minbiziaren Kontrako Gazteen Fundazioko kidea. Harekin maitemindu eta gutxi iraun zuen maitasun istorioak, minbiziarekin hil baitzen Yulexi. Jairok, ordea, barruan gordetako maitasuna kanporatu nahi izan du liburu honekin. “Jendeari azaldu nahi diot bi aldiz pentsatu gabe, bihotzak hala eskatuta maitatu nuela. Ustedut gizakiaren gauzarik onenak bihotzetik ateratzen diren horiek direla, eta liburua ere hala atera da, maitasunez egina dago. Yulexik hil aurretik behin eta berriz esaten zidan kontuan hartuko dudan esaldi hau: ‘Maitasuna da denboran eta espazioan zabaltzen den gauza bakarra’. Hain zuzen ere, liburua esanahi hori du, Yulexiren irudia eta ideia hedatzea. Fisikoki ez dago gurekin, baina irakurleen bihotzetan egongo da, beraz, bizirik jarraituko du”.

### Ametsei segika

Liburua berezia da Jairo Berbelentzat ez ezik baita Yulexirentzat ere, bikote izan zirelako. “Berak mezu bat utzi nahi zion munduari: gauzak ziurtasunez egin behar dira. Behin eta berriz esaten zuen edozeren gainetik gure ametsei segika ibili behar dugula *maitasuna* izeneko arma bakarrarekin”. Liburua martxan da eta orain garrantzitsuena liburua ez ezik Yulexi bera eta haren bizitza hedatzea da. Izan ere, “persona bat ez da sekula hilko gogoratzen jarraituz gero”.

Liburua Latinoamerikan Librimundi eta Mr.Book liburutegietan egongo da salgai, baina Jaioren asmoa da Elgoibarrera ere ale batzuk bidaltzea irakurri nahi duten herritarrek erosteko, Euskal Herrian eleberria argitaratuko dion argitaletxe bat aurkitu bitartean.

## Lorea Agirre kazetariak 'Bagara nor' hitzaldia egingo du hilaren 24an

Lorea Agirre kazetari eta *Jakin*-eko zuzendariak idatzi zuen 19. Korrikako lekukoaren barruan Euskal Herriko herrietan barrena eskuz esku pasatu zen mezua. Ahalduntzearen ideia nabarmendu zuen. Besteak beste zera esan zuen mezu hartan: “Menpeko izateari utzi, eta ahalduntzea da kontua. Euskaldun gisa ahalduntzea, herritar gisa ahalduntzeko. Jabetzea. Boteretzeta. Autodeterminatzea». Agirreraren hitzaldia antolatu du otsailaren 24rako (eguzatena) Elgoibarko Izarrak. Han azalduko ditu Lorea Agirrek ahalduntzearen nondik norakoak. Kultur Etxean izango da hitzaldi hori 19:00etan.

## Bazkide bila ari dira Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren Lagunak

Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren harira, bailaran musika zabaltzeko eta taldearen presentzia bultzatzeko Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren Lagunak elkarte sortu dute. Elkarre horretarako bazkideak lortzea da beren asmoa. Bazkideek musikaz gozatu baino ez dute ez baita inolako kuotarik ordaindu behar. Bazkide izan nahi dutenek datuok bidali behar dituzte helbide honetara: [aadbos2016@gmail.com](mailto:aadbos2016@gmail.com) (izen-abizenak, NAN zenbakia, sakelako telefonoaren zenbakia, posta helbidea eta e-posta).


## 'Caperucita Feroz' ikusteko sarrerak salgai

Otsailaren 26an izango da *Caperucita Feroz* antzezlan, 22:00etan, San Agustin Kulturgunean, Mendaron. Txanogorritxoren ipuin klasikoari buelta ematen dion antzezlan komedia musikala, bodebila, funtzio ero eta beroa da pasioa, dibertsioa, iruzurra eta beldurra nahasten dituen. Sarrerak salgai daude 7 euroan Morroskillon, Rotetan eta Udaletxean.



## Martin Hernandez Espainiako Kros txapelketan lehiatuko da

Mintxeta Atletismo Taldeko Martin Hernandez Beitia antxitxikiariak domekan Burgosen jokatu den Espainiako Kros txapelketan hartuko du parte Euskadiko selekzioarekin, kadete mailan. Kros denboraldi aparta egiten ari da 14 urteko atleta. Jokatu dituen bost lasterketetatik lau irabazi ditu, tartean Gipuzkoako eta Euskadiko kros txapelketak. Historia eta prestigio handia duten Elgoibarko Mugertza kro-sean eta Donostiako kro-sean eskuratu ditu garaipenak, eta baita Hiru-Herri Nazioarteko kro-sean ere, Burlatan.



## Euskadiko pista estaliko txapelketan emaitza onak lortu ditu Mintxetak



Euskadiko pista estaliko gazteen txapelketa jokatu zen, joan zen zapatuan, Donostiako belodromoan. Mintxeta Atletismo Taldeko ordezkariak maila onean aritu ziren eta hiru domina ekarri zituzten etxera. Batetik, Martin Hernandez Beitia 1.000 metroko lasterketa irabazi zuen, eta zilarrezko domina eskuratu zuen 300 metroko lasterketan. Eider Iglesias Alconerok, berriz, zilarrezko domina lortu zuen kadete mailako altuera jauzian.

Gipuzkoako eskolarteko kros txapelketan ere hartu zuten parte Mintxetako ordezkariak, joan zen domekan, Legazpian. Alebin mailako nesken zein mutilen taldeek Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten, eta bakarka ere nabarmendu ziren Elgoibarko atletak. Alebinetan, Haritz Iriondok eta Olatz Cintok brontzezko domina lortu zuten.

## Laukoren eta Teneriferen arteko partida bertan behera

Zilarrezko Ohorezko Mailan jarraitzeko lehiaketa garrantzitsua jokatu behar zuten, joan zen zapatuan, Laukoren eta Tenerifek Olaizaga kiroldegian. Partida ez zen jokatu, ordea, kanariarrak ez baitziren azaldu. Sanloko arduradunek jakinarazi dutenez, kanariarrek bidalitako e-posta mezu baten bidez jakin zuten, zapatu goizean, ez zirela Elgoibarrera etorriko. "Arrazoirik zehaztu ez arren, lehiaketa batzordeak hartzen duen erabakia onartuko dutela zioen mezuak". Joakoan zeuden bi puntuak Laukori eman dizkiote.

## David Slater antxitxikiari buruzko dokumentala

Allkeyko (Ingalaterra) zinemaldian estreinatuko dute *El ingles* izeneko dokumentala otsailaren 20an. David Slater atleta ingelesaren bizitza kontatzen du bere seme James zinegileak zuzendutako dokumental biografikoak, eta Elgoibarrek eta elgoibartarrek leku berezia dute filman. Azkarateko igoeraren errekorra (21:40) ezarri zuen Slaterrek 1981ean eta Elgoibarrera itzuli zen 2011n, Mintxeta taldeak proba berreskuratu zutenean, baita iaz ere, dokumentalerako irudiak jasotzera. Dokumentala Elgoibarrera ekartzeko lanean ari da Mintxeta Atletismo Taldea.





## Ramon Garcia gailendu da Master mailako denboraldiko lehen lasterketan

Laudioko Master Klasikoa jokatu zen otsailaren 13an, Master mailako denboraldiko estreinako proba. 176 txirrindularik hartu zuten parte, eta Toyota Euskoauto taldeko Ramon Garcia elgoibartarra izan zen irabazlea, helmugako marra bigarren postuan gurutzatu bazuen ere. Izan ere, David Garcia txirrindulari aragoiarra izan zen azkarrena ihes eginda ailegatu ziren hamabost txirrindularien arteko esprintean. Epaileek deskalifikatu egin zuten ordea, dortsala bistan ez zera-mala-eta. Horrenbestez, helmuga marra bigarren postuan gurutzatu zuen Ramon Garcia igo zen podiumeko goreneko kaxoira. Txirrindulari elgoibartarrak 01:51:33 denboran osatu zuen 78,8 kilome-



troko proba. Irabazlearen batez besteko abiadura, orduko 41,95 kilometrokoa izan zen. Iban Gonzalez elgoibartarra 32. postuan sartu zen helmugan, Garcia taldekidearengandik minutu eta 19 segundora.

## Erretratu zaharrak behar ditu CD Elgoibarrek

Club Deportivo Elgoibarrek 100 urte beteko ditu 2017an, eta mendeurrena ospatzeko sortu duten batzordeak kirol taldearen historia jaso nahi du liburu batean. Herritarren laguntzarekin osatu nahi dute liburua eta argazki zaharrak bidaltzeko eskaera egin diete herritarrei. Ondorengo establezimenduetara eraman daitezke argazkiak: Mekanosa, Azkue, Irudi eta Jasone. Momentuan eskaneatuko dituzte argazkiak, emalearentzat kosturik gabe.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Oiarzun 2 - Haundi 0 (Erregional ohorezkoa)  
Gure Txokoa 2 - Elgoibar 1 (1. Erreg.)  
Elgoibar 1 - Euskalduna 1 (Jub.)  
Real Sociedad 5 - Elgoibar 1 (A kadeteak)  
Aloña Mendi 4 - Elgoibar 0 (B kadeteak)  
Elgoibar 4 - Ordizia 1 (Inf. Txiki)

### ARETO UTBOLA

Fuenmayor 0 - Concepto Egile 2 (Naz. B)

### ESKUBALOIA

Alcorta Forging Group 33 - BM Barakaldo 28 (Sen. giz.)  
Gabaz Elg. 24 - Zuato Katilu 15 (Sen. giz.)  
Tecnifuelle 40 - Egia 20 (Jub. nesk.)  
Pulpo 21 - Beristain banaketak 26 (Jub. mut.)  
Pneumax Elg. 30 - Aloña 20 (Kad. nesk.)  
Eibar 27 - Casa Astigarraga 26 (Kad. nesk.)  
Bankoa Elg. 26 - Bidasoa 26 (Kad. mut.)  
Zarautz 28 - Deca 23 (Kad. mut.)  
Zumaia 10 - Dariobus Elg. 19 (Inf. nesk.)  
Aiala D 13 - Cometel 25 (Inf. nesk.)  
Aiala 20 - Federopticos Ikus 13 (Inf. nesk.)  
Ordizia 16 - Hotel Txarriduna 18 (Inf. mut.)  
Zarautz 24 - Murgil 29 (Inf. mut.)

### SASKIBALOIA

Katu Kale 41 - Viento Sur Elg. 53

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 20

16:30 Haundi - Real Union

12:00 Elgoibar - Hondarribia (Oho. inf.)

Domeka, 21

10:00 Elgoibar - Tolosa (Oho. kad.)

10:30 Elgoibar - Urki (Alebin)

12:00 Elgoibar - Arrasate (Kadeteak)

16:30 Elgoibar - Armagiñak JTK (1. erreg.)

### ARETO FUTBOLA (IMH kiroldegian)

Domeka, 21

12:30 Concepto Egile - Ebrosala (Naz. B)

### SASKIBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 20

16:00 Viento Sur - Goierri Verkol

### ESKUBALOIA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 20

10:00 Ikus - Aloñ Mendi (Inf. nesk.)

11:15 Cometel - Urnieta (Inf. nesk.)

12:30 Dario Bus - Aiala D (Inf. nesk.)

17:45 Beristain - Ereintza (Jub. mut.)

19:30 Alcorta Forging Group - Pulpo (Senior giz.)

Domeka, 21

10:00 Astigarraga - Untzilla Legazpi (Kad. nesk.)

11:30 Deca - Pulpo (Kad. mut.)

## Euskadiko Arku Tiraketa txapelketa irabazi du Javier Varonak

Zarta arkulari taldeko kide Javier Varonak Euskadiko Aretoko Arku Tiraketa txapelketa irabazi du, arku tradizionalen kategorian. Barakaldoko Lasesarre kiroldegian jokatu zen txapelketa, otsailaren 13an. Euskadiko tituluaz gainera, Gipuzkoakoa ere irabazi zuen Varonak joan zen abenduan.



Arg.: Aitor

**LANA.....****Eskaerak**

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Interna lan egiteko prest. 688 638 980

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Interna lan egiteko prest. 688 858 391

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Interna, kanpoan edo orduka. 631 995 976

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Orduka. 631 925 362

Adinekoak eta umeak zaintzeko, portalak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. 612 214 571

Pintore moduan, eraikuntzan edo adinekoak zaintzen lan egiteko prest. 612 214 602

Adineko edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 688 959 575

Adineko edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 677 709 164

Adineko pertsonak zainduko nituzke ateburuetan. Interna lan egiteko prest. Erreferentziak dauzkatz. 632 573 554

Pertsona arduratsua adinekoak edo umeak zainduko lituzke. Interna lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak dauzkatz. 631 291 645

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 692 588 534

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 617 571 210

Lan bila. Elektrizitate, iturgintza eta pintura lanak egiteko prest. 10 urteko esperientzia. 632 873 111

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentziak dauzkatz. 631 534 125

Haurrak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko prest. 655 094 780

Etxeak, hotelak, jatetxeak eta zaharren egoitzak garbitzeko prest. Interna, orduka edo gauka aritu naiteke. Esperientzia handia daukat. 626 914 904

Adinekoak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin edo sukalde lanetarako prest. 666 380 843

Adinekoak zaindu edo garbiketa zein sukalde lanetarako prest. 677 259 560

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. 692 332 871

Adinekoak zaintzeko (titulua daukat), garbiketa lanetarako eta baserrietan lan egiteko prest. 640 209 948

Garbiketan edo sukaldari-laguntzaile lan egingo nuke, esperientzia handia dut. 659 321 517

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak orduka egiteko prest. 686 578 228

10:00-16:00 bitartean orduka edo gauzez nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. 620 258 708

Lan bila nabil garbiketan, umeak zaintzen edo tabernetan. 15 urteko esperientzia daukat. 602 146 153

Eskarmentu handiko zaintzailea lanetarako prest: etxeak garbitu, nagusiak pa-seatu, haiei jarraipena egin... Diplomatuak. Esperientzia eta informea ditut. Euskalduna. 675 711 658

Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditut. 688 895 568

Lan bila nabil. 631 133 431

Lan bila nabil. 633 767 696

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Ikasketak eta esperientzia ditut. 671 989 434

**Eskaintzak**

4 eta 5 ejedun CNC mekanizazio zentrorako ofiziala behar da. Makinak prestatzen esperientziaduna. Pieza unitarioak. Bidali Curriculumak helbide honetara: 177 posta kutxa. 20.600 Eibar.

Neska euskalduna behar da Artonan interna moduan lan egiteko. 653 569 293 (Lurdes).

Mahats ardote girako zerbitzaria behar da. Bidali CVa tabernara. 646 936 092

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Elgoibarren etxebizitza alokagai hartuko nuke. 699 609 190

Elgoibarren etxebizitza alokagai hartuko nuke. 631 291 645

Etxebizitza edo gela hartu nahi dut erentan Elgoibarren edo inguruko herrietan. 688 333 713

Etxebizitza edo ganbara hartuko nituzke alokairuan bizi izateko. Logela bat edo bi. 631 098 995

**LOKALAK.....****Alokairua**

Xagua taberna alokatzen da, San Franzisko kalean. 605 741 485

**GARAJEAK.....****Salgai**

Garaje itxia salgai, Jausoro plazan. 19.000 €. Autoa eta moto bat sartzen dira bertan. 685 707 879

Garaje itxia salgai Jausoron (Santa Klara bidean). 696 874 842

**BESTELAKOAK.....**

Koloretako loradun aterki bat topatu dut Trenbide kaleko igogailuko pasabide urdinean. Udaltzaingoan dago.

1980an jaiotako en jaiak apirilaren 16an. 12:00etan, Tantikan, ongi-etorri luntxa eta bazkaria Sigman. Sartu 42€ 30350007250070067518 zenbakian. Anima zaitetz!



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**

**☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



### **Zein irizpide hartzen dira kontuan praktikan etxebizitza edo lokal bati dagokion partaide-kuota zehazteko?**

Partaide-kuota etxebizitza edo lokal bati, bere ezaugarri fisikoak kontuan hartuta, ezartzen zaion modulua da. Horrek ahalbidetzen du jabe bakoitzari komunitatearekiko dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak ezartzea, baita karga eta onuretako partizipazioa zehaztea ere.

Beraz, debekatuta dago komunitateko partaide guztiei kuota bera ezartzea etxebizitza edo lokal bakoitzaren zabalera eta ezaugarriak ezberdinak direnean.

Partaide-kuotak ehunenetan ezartzen dira eraikinaren balore osoaren arabera. Beraz, partaide-kuota guztien balorearen baturak 100 izan behar du nahitaez.

Gainera, eraikin berean askotan ezartzen dira kuota espezifikoak gastu zehatz batzuetarako zerbitzu horiek erabiltzen dituzten etxebizitza edo lokalen jabeentzat.

**AHOLKUA:** Askotarikoak dira partaide-kuotak zehazteko erabiltzen diren irizpideak: etxebizitza edo lokal baten azalera erabilgarria eraikin osoaren baitan; barrualdeko edo kanpoaldeko kokapena; bakoitzaren egoera; zerbitzu eta elementu komunei zentzuz emango dioten ustezko erabilera... Horiez gain, egon daitezke beste irizpide batzuk ere.

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak etxeko **sorginari**, asteazkenean 6 urte bete zituelako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki Ane eta Ikerren partez.



Zorionak, **Roke!** 3 urte bete dituzu, ondo-ondo pasa genuen zure egunean. 3 patxo familia guztiaren partez, bereziki Noraren partez!



Zorionak **Helenka!** Etxeko printzesak 4 urte bete zituen atzo. Muxuak etxekoan partez! Berritsu eta saltsera jarrai dezazula horrela!




Zorionak **Hai-zea**, astelehenan 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat aitita eta amamaren partetik.



Zorionak, **Aratz!** Oso ondo pasau genuen zure urtebetetze egunian, 3 urte potolo gure atxinsaltuak! Asko maixte zaitxugu.




Zorionak, **Maia-len**, 10 urte egin dituzulako. Muxu asko etxekoan partez, bereziki Asierreren partez.



Zorionak, **Aimar**, zure 3. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoan partez.



Zorionak, **Ibai**, gaur bi urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez, bereziki Ane, Jare, Naia eta Aratzen partez.



Zorionak, **printzesa**, 7 urte egin dituzulako. Muxu handi bat zuri denon partez eta batez ere Izaroren partez. Muaa!

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

## LAN-DEIALDIA DELINEATZAILE-PROIEKTUGILEA

### BALDINTZAK

↪ **IKASKETAK:** Ingeniaritza tekniko mekanikoa edo Goi-mailako heziketa zikloa. Espezialitatea: Mekanika.

↪ **CAD:** Solid Edge (3D) eta AutoCad (2D).

↪ **LAN ESPERIENTZIA:** Eskaintako lanetan edo antzerakoetan aritua izatea, baita txapa diseinuan eta modelaketan.

↪ **HIZKUNTZAK:** Ingelesa (Hizkuntza Eskola Ofizialeko B2 maila edo First Certificate of Cambridge).

↪ Elgoibarren edo inguruan bizi izatea.

**Interesatuak curriculuma bidali, otsailak 26 baino lehen [tecnica3@cometel.net](mailto:tecnica3@cometel.net) e-postara.**

 **COMETEL**

Pol. Ind. Albitxuri, 8 - 20870 Elgoibar  
[www.cometel.net](http://www.cometel.net)

Jon Aranao  
Guillermo Torres

Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inospaindegi zerbitzua daukagu.  
Dena ordue hartzeko.

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua  
[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

**610 226 651**

**atzak**  
taberna

San Roke 28, behea  
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

## 19 BARIXAKUA

**21:30** Bideo foruma: *Planes para mañana*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**22:30** Zinegiro goritan. Beldurrezko filmak. *Dejame entrar*. Sutegixa Elgoibarko gaztetxean.

## 20 ZAPATUA

**8:15** Logroñoeko espetxera martxa. Txankakuako zubian. Bazkalordurako buelta.

**12:00** Zoru klausulak kaltetutakoen batzarra, demanda kolektiboaren aukera aztertzeko. Kultur Etxean.

**18:00** DJ tailerra. Piuss Djaren eskutik. Mendaroko Gaztelekuan.

## 21 DOMEKA

**10:00** Bisita gidatua: *Maltzaga: urpeko bolkanismo kretazeoa*. Gidaria: Inma Mugertza. Antolatzailea: Haizea. Irteera: Santa Ana kalearen amaieran.

**16:30** Familia antzerkia: Festara, Tomaxen abentura. Herriko Antzokian.

## 22 ASTELEHENA

**17:00** Bisita gidatua. San Bartolome Parrokia (euskaraz). Gidaria: Pello Arrieta. Antolatzailea: Haizea.

## 23 MARTITZENA

**18:00-20:00** Literatur tailerra: *Nubosidad variable*. Idazlea: Carmen Martin Gaithe. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

## 24 EGUAZTENA

**17:00 eta 17:30** Ipuin kontalaria: Ipuinari tiraka. Kontalaria: Dorleta Kortazar. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

**19:00** Hitzaldia: *Bagara nor*. Lorea Agirre. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. .

## 26 BARIXAKUA

**22:00** Antzerkia: *Caperucita Feroz* komedia musikala. Mendaroko San Agustín Kulturgunean. Sarrera: 7 euro (Morroskillo eta Roteta dendetan salgai).

**22:30** Zinegiro goritan. Beldurrezko filmak. *Euskal Herriaren ABDak*. Sutegixa Elgoibarko gaztetxean.

## Nabarmenduak Antzerki jardunaldiak



Otsailaren 12an jarri zituzten abian 39. Antzerki Jardunaldiak Eibarren eta jadanik hainbat antzezlan ikusteko aukera izan da. Otsailaren barrena bada beste makina bat ikuskizun aukeran. Sarrerak funtzio bakoitza baino lehen, 19:00etatik 20:00etara, dagokion antzokiaren leihatilan egongo dira salgai, baita funtzioa hasi baino ordu erdi lehenago ere. 5 eurotik 15 eurora arte balio dute egunaren arabera. [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webgunean daude antzezlanei buruzko argibideak.

**ORBE**

PERTSIANAK EGITEN DITUGU  
TOLDO MOTA GUZTIETAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua  
Tel.: 943 179 860

[www.toldosypersianasorbe.com](http://www.toldosypersianasorbe.com)  
[persianasorbe@gmail.com](mailto:persianasorbe@gmail.com)

**TOLDOAK ETA PERTSIANAK**

ARMAZOIA + LENTEAK **89€**-TIK

VOGUE

Adriana Lima  
in Rio de Janeiro, Brazil.  
[VOGUE-EYEWEAR.COM](http://VOGUE-EYEWEAR.COM)

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio  
RPS 183/12  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

## Zinea (Herriko Antzokian)

## 'Los odiosos ocho'

19 Barixakua, 21:30  
 20 Zapatua, 19:00/22:15  
 (Jatorrizkoa azpituluekin)  
 21 Domeka, 19:00  
 22 Astelehena, 21:30



**Zuz.: Quentin Tarantino. Estatu Batuak, 2015. Iraupena: 167 min. Generoa: Intriga eta komedia beltza. Aktoreak: Samuel L. Jackson, Kurt Russell, Jennifer Jason Leigh, Walton Goggins, Demian Bichir, Tim Roth, Michael Madsen, Bruce Dern, Channing Tatum.** Sezesio Gerraren ondoren, dilijentzia batek Wyomingo paisaia elurtua zeharkatuko du. Bidaiariak, John Ruth sari-ehiztariak eta Daisy Domergue iheslariak, Red Rock herrira iritsi nahi dute han Domergue justiziaren esku uzteko. Bidaian hainbat ezezagunekin egingo dute topo: maior bat, sheriffa, mexicar bat, Red Rockeko borroa, cowboy bat eta general konfederatu batek topo egingo dute. Ekaitza dela-eta babeslekuan denek bat egin eta agian helmuga ez direla iritsiko pentsatzen dute.

## Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## Guardiak

09:00 - 22:00

19 Barixakua IBAÑEZ  
 20 Zapatua GARITAONANDIA  
 21 Domeka GARITAONANDIA  
 22 Astelehena ETXEBERRIA  
 23 Martitzena FERNANDEZ  
 24 Eguaztena YUDEGO  
 25 Eguena ORUESAGASTI  
 26 Barixakua BARRENETXEA

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara  
 ETXEBERRIA (Elgoibar)  
 Santa Ana, 1  
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)  
 Fermin Calbeton, 19  
 Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
 Garagartza (Mendaro)  
 Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
 Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626
Udaltzaingoa.....	943 741 394
Udalaren arreta bulegoa...	943 741 050
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700
Bake epaitegia.....	943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008
Hirigintza.....	943 744 384
Mankomunitatea.....	943 700 799
Debemen.....	943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414
Berdintasun saila.....	943 741 050
Euskara saila.....	943 744 366
Kultura saila.....	943 742 158
Udal liburutegia.....	943 743 525
Gazteria saila.....	943 531 319
Gazte informazio gunea...	943 257 986
Ludoteka.....	943 748 883
Gaztelekua.....	943 743 228
Enplegua/Merkataritza.....	943 741 050
Emugi.....	943 747 371
Kirolegia.....	943 744 415
Mintxeta.....	943 747 356
Musika eskola.....	943 742 145
Udal euskaltegia.....	943 742 731
AEK euskaltegia.....	607 601 423
KZgunea.....	943 023 640
Jubilatuena biltokia.....	943 740 526
San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Eguneko zentroa.....	943 744 565
Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Taxi geltokia.....	943 740 898
Larrialdiak.....	112
Gurutze gorria.....	943 743 864
Eusko tren.....	902 543 210
Pesa.....	902 101 210
Jokalarri anonimoak.....	657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Correos - Posta.....	943 741 547

Mendaroko Udala.....	943 033 282
Liburutegia.....	943 033 291
Bake Epaitegia.....	943 033 289
Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Hautzaindegia.....	943 755 219
Musika Eskola.....	943 244 275
Taxi.....	607 57 57 28
Ospitalea.....	943 032 800



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian  
 edo

[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR





Julen Ansola

### Eider Iriondo



Hemen naiz, mugikorraren pantallara itsatsirik bi begiak. Entzungailuak bi belarrietan sarturik. Pultsometroko zinta nire bular azpian loturik. Segunduak eta bihotz taupadak markatzen dizkidan erlojua eskumuturrean eta

nire ipurdia bizikleta estatikoan jarrita.

Teknologia berriez inguratuta, eta hau adibide bat besterik ez da. Zer esanik ez lanean eta etxean egunero erabiltzen ditugun aparatu denak kontatzen hasiko bagina zerrenda luzea egingo genuke. Menpekotasunean bete-betean murgildurik gaude. Ezin dugu ihes egin honetatik. Denbora azkar doa eta egunero ari dira tramankulu berriak merkaturatzen; kirola egiteko, lanerako...

Ikara eta dena ematen dit bukaerarik ez duen mundu zoro honetan ze tresna asmatuko ote duten pentsatzeak. Ni neu askotan izan naiz teknologia berriak probatzeari uko egin diona, etorkizun luzean agian erabiliko nituzkeela uste nuena baina epe motzean erabiltzen bukatu izan duena, eta konturatzerako tramankulu horien guztien beharra sentitzen dut. Atzera begira jarrita, lehen, tresna gutxi batzurekin egiten genituen eguneroko zeregin guztiak. Bada, ordea, txikitatik, nire ondoan izan dudan hariarik gabeko

tresna: irratia. Goizetan, begiak irekitzen laguntzen didana. Egunean zehar gertatzen direnak, onak eta txarrak, kontatzen dizkidana. Lehengo eta oraingo musika uztartuz nire belarriak goxatzen dituen eta nire gerria dantzan jartzen duena.

Lehen irratiak ezarri zirenetik, mende erdi pasa den arren, garai hartako bizitasuna mantentzen duela esatera ausartzen naiz. 70eko hamarkadan ikusi zuen argia Arratek. Gure amamari ematen zion laguntasuna bezalaxe, ziur naiz inguruko beste etxe asko goxatu dituela. Eugenik ez zuen aukerarik izan, sortutako tresna berri guztiak ezagutzeko, bai ordea bere belarri finei esker, etxeko sutondoan jarri eta Arrate entzuteko.

Arrateri esker jakiten zituen inguruko albisteak, Arrateri esker entzuten zituen horren gustoko zituen trikiti piezak. Arrateri esker bere gaztetako erromerietara bidaiatzen zuen, horrela, bere hankak mugitu gabe, bere eskuak dantzan jartzen zituen sukaldeko mahaia panderotzat hartuta.

Badira tresnak, irratia bezala komunikatu eta komunikatzera laguntzen dutenak. Beste tresna askok ordea aldentzera eraman ahal gaituzte. Erabileran omen dago gakoa, beste gauza asko bezalaxe. Ez gaitezen gu itsutu teknologia berri guzti horiekin eta daukagunaz gozatzen jarrai dezagun.

*“Bada, ordea, txikitatik, nire ondoan izan dudan hariarik gabeko tresna: irratia. Goizetan, begiak irekitzen laguntzen didana”*

*Jose Mari  
Loyola Garate*



2016ko otsailaren 16an hil zen, 67 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

II. URTEURRENA

*Amaia Arrizabalaga Arakistain*



*Bildu ohi garenean  
Azkaraten bertan  
distira nabari da  
gure begietan  
bi urte pasa arren  
Amaia, benetan,  
zure falta ez degu  
neurtzen urteetan  
gurekin zaudelako  
egun guztietan.*

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela. Haren omenez II.urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 20, arratsaldeko 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



II. URTEURRENA

*Bittor Alberdi Elorza*

*"Patxillo"*

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.



*Ustekabean joan zinen gure ondotik,  
ez ordea gure bizitzatik,  
keinu, irrifar, egoera, ospakizun,  
tronpeta doinu bat  
Beti gure bihotzetan, maite zaitugu,  
ez da agur bat, gero arte baizik.*

Etxekoak



# Hitzaldia: *Bagara nor*

## Lorea Agirre

Otsailak 24, asteazkena  
19:00

Kultur Etxeko hitzaldi-gela



### *Bagara nor*

*Auzia ez da izan ala ez izan.  
Nolakoa edo halakoa izan. Kontua ez da hori.*

*Kontua ekitea da.  
Egitea.  
Egiten duguna gara.  
Izatea egitea da.  
(...)*

*Bagara nor* Korrika 19ko lekukoan Euskal Herria zeharkatu eta Bilbon irakurri zen mezua da. Mezu horrekin zer esan nahi zuen azalduko digu kazetari eta antropologo beasaindarrak.

Antolatzailea:



Laguntzailea:

